

noaia



**Udajolasen izena
emateko epea zabalik da**

Korrika, iruditan



**Andatza eguna
bueltan da**

Noaua!k
Udajolas-erako
lan-poltsa osatzeko, zuzendaria eta
begiraleak behar ditu,
uztailean lan egiteko.

PROFILA:

2 hilabeteko esperientzia
Begirale titulua izatea / Zuzendari titulua
EGA edo baliokidea den agiria
Sexu delitua egiteagatik aurrekari
penalak ez dituela egiaztatzen
duen ziurtagiria.
Usurbildarrek lehentasuna

Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:

Noaua! Kultur Elkarte

Bordaberri 3, Usurbil edo

elkartea@noaua.eus

Curriculum-a bidaltzeko azken eguna: **maiatzak 5**

noaua



Udarregi
IKASTOLA



USURBILGO HAUR ESKOLA



0 eta 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA
2020, 2021 eta 2022 urteetan jaiotako haurrei zuzenduta

- **MATRIKULA EPEA:** apirilaren 28tik maiatzaren 11era
- **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7:30-16:30.
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila-uztaila.
- **INFORMAZIOA ETA HITZORDUA:** 943 374061 telefonoan
8:30etik 12:00etara
edo haureskola@udarregi.eus-en

Helbidea: Ugarte, 9 20170 USURBIL

Béhin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizuke, epea kanpoko izen-ematei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu

Albisteak iruditan

Zumartegi, txirrindulari gaztetxoek topagune

Zumartegi industriagunea txirrindulari gaztetxoek topalekuan bilakatu zen apirilaren 10ean. Gaztetxoak lehiatu ziren, hiru mailatan: benjaminak, alebinak eta infantilak hain zuzen.

Proba Donostialdea Bizikletan gaztetxoek zuzenduriko txirrindulari eskolak antolatu zuen. Eskola honek Astigarraga, Donostia, Lasarte-Oria, Hernani eta Usurbilgo gaztetxoak biltzen ditu. Tartean aipatu moduan herritarrak. Apirilaren 10eko hitzorduan ere usurbildarrok parte hartu zuten: batetik, infantil mailan, Oihan Herrerak, Adur Soroak, Imanol Limiak eta Anje Larburuk. Alebinetan, Eñaut Soroak eta Haritz Herrerak.



Proba Donostialdea Bizikletan txirrindulari eskolak antolatu zuen.

Laburrean

Intzidentzia murrizten

292,87tik 276,60ra murriztu da koronabirusaren intzidentzia-tasa azken astean Usurbilen.

6 Covid-19 kasu berri hauteman ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, 28 hilabete hasieratik.

Musukorik gabe

Eremu itxi gehienetan musukoa janztea ez da derrigorrezkoa. Beharrezkoa izaten segitzen du osasun eta garraio zerbitzuetan. Gomendagarria, eremu itxietan denbora luzez, pertsona zaurgarriekin edo ekitaldi jendetsuetan egonez gero.

Odol-ematea

Hurrengo hitzordua maiatzeko lehen astelehenean, hilaren 2an, 16:30-20:30 artean Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola eman asmo dutenek dei dezatela hona: 943 007 884.

noaia

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaia.eus // www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Duela egun batzuk ikusi nuen Imanol Uriberen azken pelikula: “Llegaron de noche”. Aspaldi ikusi nituen bere “La muerte de Mikel” eta “La fuga de Segovia”. Euskal Herriko egoera soziopolitikoak izan da oro har bere filmen gai nagusia. Goya sari anitz jasoa da gure zinemagilea.

Bizitzaren gora-beherak zirela eta El Salvadorren jaioa da Uribe eta jesuitetan ikasi zuen; Ignacio Ellacuría asko miresten zuen eta arrazoi horiek bultzatuta egin du agian bere azken filma Ellacuriaren, bere bost erlijioso kideen eta zentroko bi langileen erailketaz. 1989ko azaroaren 19an gertatu zen.

Pelikula honen berritasuna da zentroko garbitasunaz arduratzen zen emakume xume baten ikuspegitik egina dagoela. Kasualitatez ikusi zuen nola armadako soldaduek hiltzen zituzten. Bere kristau fedeak, erlijiosoak pobreez arduratzen ziren pertsona on batzuk zirelako uste osoak eta ikusi zuenaren egia mantentzeko gogoak bultzatuta eutsi zien tinko bere deklarazioei.

Aktore saila ondo aukeraturatu dago. Juana Acosta, testigua, nabarmentzen da batez ere. Bere gain dara-

“Gauzez iritsi ziren”



“Llegaron de noche” Imanol Uriberen azken filmaren izenburua da.

LUIS ARANALDE

“Ellacuriak erlijioso kideei esaten zien: ‘Egunez hiltzen banaute, badakizue, gerrilla izan duk; gauzez hiltzen banaute, aldiz, militarrek izango dituk’. Asmatu zuen. Horregatik filmaren titulua”

ma kontaktaren pisua. Bera da filmaren ardatza. Sendotasuna, samurtasuna, fedea eta printzipio sendoak darizkio. Berarentzat “los padres” (horrela deitzen die jesuitei) pertsona onak ziren, besteen arazoez kezkatzen zirenak. Karra Errejeldak interpretatzen du Ellacuriaren rola eta Carme-

lo Gomezek Aita Tojeira parrokoarena.

Filmari ekin aurretik, Uribe bi urtez dokumentatu zen eta Ellacuriaren inguruan ibili ziren batzuekin hitz egiteko aukera ere izan zuen. Aita Tojeirarekin adibidez; parroko bat da eta berak erraztu zion bidea Juana Acostari Ipar Amerikara alde egin zezan. Egund, han jarraitzen du bizitzen.

Filma tarteka astun samarra da, erritmo gutxikoa. Baina, guztizko sinesgarritasuna du, objektibitate handikoa. Ondo azpimarratzen ditu diplomatiko frantsesen lanak eta jesuiten laguntza. Garbi agertzen du baita ere Ellacuriak zioen sinpatia Askapenaren Teologiarri, baina beti kondenatuz FML-

Nren biolentzia. Libreki hitz egiten zuen, baina bazekien askatasun horren prezioa bizia izan zitekeela. Bere erlijioso kideei esaten zien: “egunez hiltzen banaute, badakizue, gerrilla izan duk; gauzez hiltzen banaute, aldiz, militarrek izango dituk”. Asmatu zuen. Horregatik pelikulaaren titulua.

Juan José Tamayo teologoak galdetzen dio bere buruari: zergatik hil zituzten? Eta hainbat erantzun, bat baino gehiago aurkitzen ditu. Armadarekin bat egiten zuten elizgizonentzat, oligarkiarentzat eta botere politikoarentzat arrazoi nagusia hau izan zen: jesuitak beren eginkizun pastoralak alde batera utzi eta ekintza politikoetan sartu zirelako buru-belarri. Baina Jon Sobrino teologoarentzat beste hau da arrazoiak: “gezurra agerian utzi eta profeta zintzo gisa injustizia klase guztiak salatzen saiatu zirelako hil zituzten. Pobreen artean gizarte berri baten kontzientzia izateagatik, Jainkoaren Erreinuaren utopia hots egiteagatik. Eta horrek ez du barkatzen”.

Eta Tamayok dio: “hil zituzten kristautasuna bizitzeagatik ez herriaren opio bezala, zapalduen liberazio gisa baizik”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Kima
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Ika-mika

Gora Usurbilgo Sagardo Eguna!

Kaixo lagunok: gogoratzzen duzue azken Sagardo Eguna? Sagardoa dastatzeko gogoz zaudete?

Bi urte gogor hauen ondoren berriz ere hemen dator usurbildarrontzat hain garrantzitsu eta haundia den eguna. Hemen da XXXIX. Usurbilgo Sagardo Eguna!

Ilusio haundiz hasi arren, ez zaigu erraza egin berriz ere egun hau antolatzen hastean eta inoiz baino herritarren laguntza handiagoa beharko den urtearen aurrean jarri gaitu honek.

Urteak pasa, urteak etorri, Gipuzkoako Sagardo Elkartetik gero eta arazo handiagoak jartzen dizkigute sagardoa lortzeko eta

Sagardo Eguna (gure herriko formatuan) aurrera eramateko, horrenbestez eta oraingoz behintzat, harremanak etetea erabaki behar izan dugu.

Usurbilgo Sagardo Egunak 39 ekitaldi beteko ditu aurten, Euskal Herri osoko zaharrentariko eta aitzindaria izanik, tratua berezia ematen digutela diote, baina aurtengo baldintzak bete ahal izatea, ezinezkoa izan da guretzat. Nola ez, arazo guztiaren atzean, dirua dagoelarik.

Egoera honetaraino iritsita eta sagardoa orain arte bezala dohainik lortzea ezinezkoa dela garbi dagoenez, gure aldetik, sagardotegiekin banan-

banan hitz egitea erabaki dugu eta denentzat onargarri egin daitekeen kopuru txiki berdin bat eskaini diegu.

Denetariko erantzunak jaso ditugu, baina orokorrean, pozik gaude jasotako emaitzarekin. Aldez aurretik mila esker egoera ulertu eta baiezkota eman diguzuenoi, Sagardo Eguna aurrera eramateko ezinbestekoak izan zarete.

Ez dugu aipatu gabe utzi nahi, Udalak lehen momentutik erakutsi digun konpromisoa eta emandako laguntza, denon artean egun hau posible izateko beharrezkoa hau ere.

Hau dena horrela izanik, herritarren txanda da orain,

jarrai ezazue beti bezala gure Sagardo Eguneko edalontzi eta pintxoak erosten, gure diru iturri handiena dira eta egun hau ospatzen jarraitu nahi badugu, funtsezkoa zaigu zuen parte hartzea.

Irrikitan gaude berriz ere herriko plaza, frontoi eta kaleak gainezka ikusteko, barre, algarra, musika eta dantzaz alaitzeko eta zuek ere halaxe egotea espero dugu.

Egun gutxi barru ikusiko dugu elkar. Aurten bai, kolosala izango da!!! Gora Usurbilgo Sagardo Eguna!

Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak

Ika-mika

Maiatzaren Lehena, altxa! Egin dezagun posible

Pandemiatik atera eta orain gerra dugu albiste. Egoera batean nahiz bestean patronalaren interesak dira lehentasun. Pandemian zehar farmazeutikak aberastu ziren, eta orain armagintza eta energia transnazionalen txanda da.

Langileok, aldiz, gero eta txiroagoak gara. Prezioak gure soldaten gainetik ari dira hazten. Zerbitzu publikoek ez dituzte herritar guztien osasuna, hezkuntza edota etxebizitza beharrak asetzen. Bizitzari eusteko ezinbestekoak diren

zaintza lanek emakumeen* bizkar jarraitzen dute.

Finean, testuinguruak aldatzen dira, baina oinarrian dagoen arazoa bera da: egungo sistema ekonomiko eta soziala, bidegabea izateaz gain, bide-razina da. Energia eta materialak agortzen ari dira, larrialdi klimatikoa areagotzen. Eta baliabideak —gero eta urriagoak— eskuratzeko gerra militar eta komertzialak ari dira ugaritzen. Honen guztiaren ondorioz, gero eta herritar gehiago migratzera behartuak dira.

Zorionez alternatiba badago:

planetaren baliabideak mugatuak direla aintzat hartuta, eredu ekologikoki sostengarria ezarri eta birbanaketa politikak bultzatzea. Enplegua, zaintza lanak eta ondasuna banatzea. Horixe LABek proposatzen duen 'banaketa hirukoitza'-ren funtsa.

Erronka globala da, baina herrialdez herrialde gauzatu beharrekoa. Euskal Herrian egin ahal izateko estatu tresnak behar ditugu: Euskal Lan Kodea eta Euskal Gizarte Segurantzza. Burujabetza eskuratzeko behar dugu, Madrilan eta Pari-

sen posible ez diren aldaketak Euskal Herrian gauzatu ahal izateko.

Urratsak eman ditzagun gaurdanik. Lantoki eta sektore mailan borrokak piztu ditzagun. Politika publikoak aldatzeko borroka egin dezagun.

Datorren Maiatzaren 1ean, Donostian izango dugu zita. 12:00etan Easo Plazatik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko deia egiten diegu Buruntzaldeako herritarrei.

Altxa eta abian jar gaitezen!

Euken Villasante, LAB



Nagore Lertxundi: “Genetikaren kasuan, ikasketak katalanez baino ezin dira egin”

Unibertsitate ikasketek eraman zuten Nagore Lertxundi usurbildarra Bartzelonara. Laugarren urtea du bertan genetika ikasle honek, beraz, ikasketak amaitzeko hilabete gutxi batzuk baino ez zaizkio falta. NOAUA!rekin izan da esperientzia partekatzen.

NOAUA! Zerk eraman zintuen Bartzelonara?

Nagore Lertxundi: Behin batxilerra amaituta, zein ikasketak egin nahi nituen erabaki behar nuen eta nik argi neukan biologiaren bidea hartuko nuela. Beraz, nire aukeren artean Bilbon biologia ikastea eta Bartzelonan genetika ikasketak egitea zeuden. Genetika ezin da beste inon egin estatuan. Ez nuen beste erremediorik izan eta hona etorri behar izan nuen.

Katalunian unibertsitate ikasketak katalanez izaten dira gehien bat, zure kasuan ere hala da?

Genetikaren kasuan, ikasketak katalanez baino ezin dira egin. Irakasle gehienak katalanak dira, baina beti eskaintzen dute aukera azterketak gazteleraz egiteko, eta aurkezpenekin ere berdin. Irakasle gutxi batzuk erdaldunak dira eta klaseak gazteleraz ematen dituzte, baina %80 inguru katalanez da. Orain ohituta nago, baina hasieran nahiko gogorra egin zitzaidan.



Nagore Lertxundik laugarren urtea du genetika ikasten. Bartzelonan ari da.

NAGORE LERTXUNDI

“Bartzelonako unibertsitatera iritsi eta lau euskaldun gelan. Ia nahigabe elkartu egin ginen”

Zer moduz moldatzen zara katalanarekin?

Orokorrean ulermen arazorik ez dut. Elkarrizketa baten %95 ulertzeko gai naiz eta irakurtzerakoan ere berdin. Idazten ez dakit, ordea, eta hitz egiten

molda ninteke. Ez naiz sekula akademian izan, eta beraz, dakidan hori unibertsitatean eta kalean entzundakoa dakit. Gramatikarik ez dakit batere, baina ez dut katalanez ia batere hitz egiten egunerokotasunean. Hala ere, elkarrizketa bat mantentzeko gai izango nintzateke.

Bartzelonan bizi diren euskaldun eta erdaldunekin duzu, beraz, harreman gehiago.

Unibertsitatera iritsi nintze-

nean, gelan lau euskaldun ginela ikusi nuen, eta ia nahigabe ere elkartu egin ginen. Hala ere, 60 pertsonako gela batean, 20 edo 25 pertsona ez ginen katalanak, eta horrek aukera eman zidan leku gehiagotako jendea ezagutzeko. Horrez gain, katalanak diren horiek lehenagotik ere kuadrila dute bertakoa eta asteburuetan etxera joaten dira. Beraz, kanpotik etorrita hemen bizi garenok kanpotik etorri diren horiekin egiten ditugu planak asteburuetan jakinda ez garelako astebururo etxera itzultzen. Bilbon edo Gasteizen ikasten duten horiekin gertatzen den bezala da, azken finean. Hala eta guztiz ere, katalanekin oso ondo moldatzen naiz, bai eta Herrialde Katalanetakoekin ere. Azken horiek ere katalanez hitz egiten dute Balear Uharteetakoan kasuan, esaterako. Horiekin ere ondo moldatzen naiz.

‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarrizketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat eza gutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: erredakzioa@noaua.eus

“Erasmus programan ere eragina izan du pandemiak”

NOAUA! Ikasketak katalanez egin behar horrek atzerriko jende gutxiago edo ia batere ez egotea dakar?

Nagore Lertxundi: Ikasketak hasi genituenean ez zegoen atzeritarrik, baina azken

urte hauetan Erasmus egitera etorritako ikasle atzeritarren bat izan dut hautazko klaseren batean. Pandemiak ere harriatu gaitu, eta horrek Erasmus programa ere neurri batean gelditu edo behintzat gutxiagotu

egin du. Orain 100 bat pertsonako klaseren bat dudanean, irakasleak galdetzen duenean Erasmuseko norbait dagoen, normalean pare bat pertsonak altxatzen dute eskua. Ingelesez ere ez dira eskaintzen kla-

seak, eta haiek ere katalanez jarraitu behar izaten dituzte klaseak, beraz, ez da horren erraza gurean Erasmusekoak izatea, gazteleraz ere klaseak entzun ezin dituztela kontuan izanda.

“Bartzelonako hiriak mila aukera eskaintzen ditu aisialdirako”

NOAUA! Bartzelona hiri handia da. Zein aukera eskaintzen ditu egunerokotasunean?

Nagore Lertxundi: Sagrada Familiatik oso gertu bizi naiz orain. Garraio publikoan ibili behar izaten dut eta unibertsitateraino ia ordubete egin behar izaten dut. Goi-zetan izaten ditugu klaseak eta gero, etxera joaten naiz normalean, baina batzuetan unibertsitatean bazkaltzen dut. Orain Gradu Amaierako Lana egiten ari naiz, eta beraz, hori egiteko ere denbora behar izaten dut.

Bartzelona hiriak aisialdirako mila aukera eskainiko ditu, ezta?

Beti oso giro ona egoten da, bai tabernetan, bai eta gainontzeko lekuetan ere. Deneratiko ekintzak egiteko aukera dago hemen; ikusi egin behar zer gustatzen zaizun. Kirol pixka bat egiten dut nik, unibertsitatera joan eta lagunekin zerbait hartu denbora librean, horixe da nire egunerokotasuna.



“Sagrada Familiatik oso gertu bizi naiz orain”, Nagore Lertxundi adierazi digunez.

NAGORE LERTXUNDI

“Usurbilen lasai asko ibiltzen naiz kalean gauez ere, baina hemen ez horrenbeste”

Ahal dugunean plan alter-natiboagoak ere egiten ditugu, parke batera joan eta lasai egon edo dena delakoa.

Oso ezberdinak al dira ohi-turak Usurbilen eta Bartzelo-

nan?

Nik badut hemen lagun taldea eta askotan taberna jakin batzuetara joaten gara, baina ez da Usurbilen bezain ohikoa beti leku berean elkartu eta leku berean egotea. Usurbilen lagunak dauzkatz, familia eta ezagunak, modu ezberdinetan nire bizitzaren parte diren horiek. Hemen, berriz, klasekideak nire pisukideak dira aldi berean, baita lagunak ere. Zentzu horretan, batzuetan bakardade hori gehiago sumatzen dut etxean baino, gauza gehiago egiteko aukera dago hemen, baina beti pertsona berdinekin egon behar horrek mugatu ere egiten zaitu.

Orain arte ez nintzen Bartzelonan bizi, hiriaren barnean, eta batzuetan handiegi egiten zait. Segurtasun ikuspuntutik ere, horren handia izateak gauez ibiltzeko segurtasun falta gehiago ematen dit.

Usurbilen lasai asko ibiltzen naiz kalean, baita gauez ere, baina hemen ez horrenbeste.

“Masterrak begiratzeko garaia dut orain”

NOAUA! Pandemiaren eragina nabaritutako zenuen han ere.

Nagore Lertxundi: Oraintxe bertan nahiko lasai dago kontua. Jada neurri asko kendu egin dituzte, eta normaltasunera itzultzen ari gara pixkanaka. Niretzat gogorrena pandemia hasiera izan zen. Unibertsitate ondoan bizi nintzen eta dena itxita egoteaz gain, hor inguruan ez zegoen ezer. Ezin nintzen Bartzelonara jaitsi, ezin nintzen etxetik atera, eta gainera, logela partekatu egiten

nuen. Astean bitan unibertsitatera joaten nintzen, baina gainontzean ezin nintzen ezertarako atera. Garai horretan nahiko gaizki pasatu nuen. Urtebete neraman Bartzelonan ezer egin gabe. Nahiago nuen Usurbilera itzuli eta behintzat nire logela izan eta familiarekin lasai egon. Egoera nahiko eramangaitza egin zitzaidan. Orain egoera asko normaldu da.

Genetika ikasi ostean, Euskal Herrian saiaturako zara lana bilatzen edo Bartzelona inguruan irudikatzen duzu etor-

kizuna?

Masterrak begiratzeko hasteko garaia dut orain. Euskal Herrian ez daukat aukera askorik ez masterra egiteko, ez eta lana aurkitzeko ere. Lana zerbait egon daiteke, baina gauza gutxi. Nik praktikak Euskal Herrian egin nituen bertako enpresa batean, gaixotasun genetiko arraroen diagnosiak egiten, baina aukerak oso murrizak dira. Oraintxe bertan ez dakit lan bila hasi edo master baten aldeko apustua egin. Hala ere, etorkizunean Usurbilen bizi nahiko nuke eta zorte pixka batekin

lana ere gertu aurkitu. Formatzeko jarraitu nahi izanez gero, argi daukat Euskal Herrian ez daukadala aukerarik. Online ikasketak egiten jarraitzeko aukerak beti egoten dira, eta hori etxetik egin nezake. Ziur aski oraindik urte pare bat kanpoan egin beharko ditut dela Bartzelonan, dela Madrilen edo atzerrian. Azken hori, egia esan, nahiko baztertua daukat. Beste hizkuntza batean ikasten jarraitu beharra ez da nahiko nukeena, baina ez dakit. Denborak esango du.

Baserritar gazteak sasoi betean

Udaberri giro betean sartuta zeuden duela 25 urteko usurbildarrak. **Jabier Arruti** Andatza KKEko kideak 22 urte lehenago egin zuten lehen ibilaldi hura zuen gogoan iritzien atalean, eta gehiago egiteko esperantza ere bai etorkizunean.

Baserritar ugari zituen usurbilek garai haietan, 191 baserritar banatuta. Produktu asko saltzen zituzten orduan baserritar gazte zein helduagoek: behi haragia, behi esnea, saga-


rra edo frutak, barazkiak, arkumea, txekorrak... Etorkizun hurbil oparoa ikusten zieten baserritarrek euren inguruari eta lan nahikoa bazutela bertan zioten: "Baserritara ez nuke aldatuko, hemen ez dago estresik", zioen **Mikel Orbegozo**. Kalean egindako inkestan, herritarrek bertako baserritarren produktuak erosten dituztela edo gustura erosiko lituzketela zioten.

Politika kontuetan, udaletxe-ko plenoan aho batez onartu zuten Ongizaterako aholku

batzordea sortzea, eta hilero bilerak egitea. Herriko zaharren egoitza guztiek hartu zuten parte bertan, anbulategiak eta guraso eskolak.

Kirol kontuetan, pilota hizpide. Herriarteko kanporaketa partidua jokatu behar zuen aseteburuan Usurbilek Zizurkilen aurka, eta baikor agertu ziren usurbildarrak.

Horrez gain, kultura arloan, **Larrua Truk** taldeak disko berria kaleratu zuen eta kontzertua eskaintzekoak ziren **Aginagako Eliza Zaharrean**.



1997ko apirilaren 18ko azala.

Duela 25 urte

NOAUA! 18. zenbakia 1997ko apirilaren 18an

"Ia 30 urte egin nituen profesional mailan jokatzeko"

Joxe Ramon Pagola, 69 urte ditu. Txikiarri jaioa, hiru urterekin Kalezarrera joan zen bizitzera. Erremontean jokatzeko zuen eta profesionaletan ia 30 urte egin zituen. Oso lotsatia da Joxe Ramon eta berak ez du hori ukatzen.

NOAUA! Elkarrizketek horren beldur handia ematen al dute?

Joxe Ramon Pagola: Erremontean jokatzeko nuenean, irratiari lan egiten zuen lagun bat nuen. Hura behin baino gehiagotan saiatu zen ni elkarrizketatzen, baina irratiari ez zuen nire hitzik inoiz lortu. Beste behin, Madrila joan ginen partida bat jokatzera. Ondoren, irratiari eraman gintuzten elkarrizketatzera. Hura erridikulua, ez dakit bi hitz osatu nituen, erderaz hitz egiten jakin ez eta gainera, lotsez gainezka.

Beti izan zara hain urduri eta lotsatia?

Uste dut baietz. Txikitan bizikletan lasterketak egingo nituzkeenean geratzen nintzen. Aurrea geratzen ez banintzen, erridikulua egin-

go nuela uste izaten nuen. Beste batean, eskolako arloan korrika egin genuen Usurbilen. Ni bigarren gelditu nintzen, Orbegozoren atzetik. Ondoren, aureskua egitera atera ninduten, hura lotsa!

Horregatik al zaude oraindik ezkondu gabe?

Parte batean baietz esango nuke. Lotsatia izan naiz beti eta ez dut balorerik izan.

Noiz eta nola hasi zinen erremontean jokatzeko?

Txiki-txikitik pilotarako afizio handia izan dut. Usurbilen eskuz pilotan ibiltzen nintzen, eskuina oso ona nuen, baina ezkerrean zeharo txarra. Aitak honela ezin nuela jarraitu esan zidan, eta erremontean hasteko. Izan ere, erremontean esku bakararekin jokatzeko da. Donostiako "Frontón modernora" joaten nintzen erremontean jokatzeko ikastera.

Zure pilotazaletasuna horren handia al zen?

Ikaragarria zen, sekulako afizioa nuen. Astean hiru aldiz joaten nintzen Donostiara. Trena hartu, Amaran jaitzi eta korrika batean joaten nintzen

Atotxa parean zegoen pilotalekura. Azkar aldatu eta pilotan jokatzera, besteak eserita lasai egoten ziren bitartean.

Profesionaletan ere hainbat urte egin zenituen, ezta?


Ia 30 urte egin nituen profesional mailan jokatzeko. Urumea pilotalekuan egin nuen nire debuta 1949ko urriaren 29an, 19 urterekin. Galarretan, Euskalen, eta Madrilen ere jokatu dut. 50 urterekin utzi nuen. Galarretan egin zidaten omenaldia, sekula baino urduriago joan nintzen.

Kalezarren Peña Pagola elkarteare bada. Peña ere bazen nuen?

Bai, ez zabilta oker. Nire ize-nean peña bat egin zuten. Ez oso famatua nintzelako, garai hartan bilgune bat nahi zuten kalezartarrek eta ezin zuten lortu. Honela, kirolari baten izenean elkarte bat sor zitekeen, nire izena erabiltzea erabaki zuten.

Pilotalekura joaten al zara?

Orain ez naiz hurreratu ere egiten. Garai batean, ilobek erremontean jokatzeko zute-nean joaten nintzen, baina



Joxe Ramon Pagola.

hauek ez ziren pilotari atera, eta joateari utzi nion. Illobak pilotan jokatzeko ikustean, pilotakadaren bat jaso eta min hartuko zutela iruditzen zitzaidan.

Beste zaletasunik ba al duzu?

Mendirra joatea oso gustuko dut. Igandero igotzen naiz Andatzara, azken 7-8 urte hauetan, zenbat aldiz igo naizen apuntatuta daukat. Ez etxean, Andatza bertan baizik. Goiko txabolako eserlekuan, iltzearekin zulotxo bat egiten dut Usurbildik aterata igotzen naizen bakoitzean. Zenbatu nuen azken aldian, 700 baino gehiago zeuden, baina aurretik zenbatzen hasi banintz... Andatza egunean bi aldiz igoko naiz, goizean eta arratsaldean.

*Ez eman buruhauste gehiago zure kontuari!
Esku onetan jarri!*

**ELORZA &
ASOCIADOS**

**IREKIERA
BERRIA USURBIL**

 **AHOLKULARITZA OSOA
ENPRESA ETA AUTONOMOAK**

1. Aholkularitza
Autonomoak eta enpresa txikiak, lan eta finantza kontabilitatea, zergak, BEZa, errenta kontua, alokairu kontratuak, nominak, immigrazio prozedurak, etab.

2. Aseguroak
Kontsultatu edozela aseguru mota inolako konpromisorik gabe. Utzi adituek arduratzen!

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera 9:30 - 14:00
Ordutegitik kanpo hitzordua eskatuta

elorzaasociados.arantza@outlook.es
elorzaasociados.valeria@outlook.es

HASTEN GARA?



Zubiaurrenea kalea 3 azpia, 20170, Usurbil, Gipuzkoa | Mug. 636746863 / 943906268

 **BONEX**
REHABILITACIONES S.L.

- * Impermeabilizazioak
- * Isolamendu termikoa
- * Teillatuak
- * Mantenimendua
- * Fatxadak
- * Irisgarritasuna

ERAIKINAK

BIRGAITZEKO ETA

HOBEEKUNTZA

ENERGETIKOA

LORTZEKO

SOLUZIOAK



SOLUZIOAK ZURE ESKU, HEMEN, USURBIL

Zubiaurrenea Kalea 3, 20170, Usurbil
Tlf: 625077916 | info@bonex.es

 **USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**
CIFP USURBIL LHII


Ate Irekiak

Maiatzak 4

 Erdi Maila: 16:00 - 17:30
Goi Maila: 17:30 - 19:00

Maiatzak 7

 Erdi Maila: 10:00 - 11:30
Goi Maila: 11:30 - 13:00



**HARTU
HITZORDUA!!!**

 943 364600
 adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus

Euskara normalizatzen laguntzeko urrats bat

Buruntzaldeko uda-letako Euskara zerbitzuek Ticket Bai fakturazio sistema euskaraz ezartzera animatzen dituzte merkatariek. Horretarako, dirulaguntzak prestatu dituzte edo horretan ari dira. Hainbat komertzio hasi dira honezkero haien negozioak egokitzen.

Ticket Bai egitasmoa Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru foru aldundiek elkarlanean garatu dute, eta, funtsean, enpresen zein autonomoen diru sarrerak kontrolatzeko bidea izango dute lurraldean lurraldeko ogasunek. Helburu nagusiak, sustatzaileen hitzetan, hauek dira: zergapekoei laguntza ematea haien zerga betebeharrak betetzeko, eta iruzur fiskalaren aurka borrokatzea. Arabak, Bizkaia nahiz Gipuzkoak ez dituzte epe eta erritmo berak; azken horretan, esaterako, negozioek

aurten eta hurrengo urtera birtartean ezarri beharko dute sistema, eta sektore bakoitzak epe desberdina izango du. Zerga kudeaketaren profesionalek, adibidez, aurtengo uztaillean hasi beharko dute; jarduera profesionalek, irailean; txikizkako merkatariek, ostalariek eta ostatu sektorekoek, azaroan; garraioa eta aisia, higiezinaren sustapena, eraikuntza eta kultura eta pertsona zerbitzuak arloek, 2023ko apirilean; eta fabrikazioa, handizkako merkataritza, telekomunikazioak, finantzak, artistak eta behartuta egongo diren gainerako alorreko profesionalek, 2023ko ekainean.

Dirulaguntzak eskualdean

Hainbat komertzio hasi dira honezkero haien negozioak moldatzen. Buruntzaldea eskualdeko udaletako euskara zerbitzuek iragarri dute sistema hori euskaraz jartzeagatik dirulaguntza

lerroak prestatu dituztela edo horretan ari direla. Nabarmendu dute fakturak euskaraz egiteko sistema instalatzeak hizkuntza horren normalizazioan beste urrats bat egiteko aukera ematen duela, herritarren hizkuntza eskubideak betetzen ari direla bermatzen dela, eta bezeroei tratatu on bat ematea ahalbidetuko duela. Halaber, zehaztu dute tiketak euskaraz inprimatuz 123/2008 dekretua beteko dutela komertzioek, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa.

Lan mundua estrategikoa da euskararen normalizazioan eta Ticket Bai sistema arlo hori euskalduntzen laguntzeko baliagarria izan daiteke.

Zentzu horretan, negozio bat duten dendariak beren herriko euskara zerbitzuekin harremanetan jartzera eta dirulaguntza eskatzera animatzen dituzte eskualdeko udalek.

“Bezeroek aukera izan behar dute arreta eta fakturak euskaraz jasotzeko”

Aintzane Ledesma Ilea-telier ile apaindegiko jabea da. Urnietan du denda (Maximo Yurramendi kalea, 30), eta herri horretako On Bizi merkatarien elkarteko lehendakaria ere bada. Beste merkataria asko eta asko bezala, Ticket Bai sistema ezarri behar du, eta hasi da lanean honezkero. Azaldu duenez, bere negozioiko bezero gehienak euskaldunak dira, eta elebitan ezarriko du, euskaraz zein gaztelaniaz. “Euskaraz artatuak izan nahi duten bezeroek aukera izan behar dute fakturak ere hizkuntza horretan jasotzeko; tiketak euskaraz inprimatu ahal izatearena da Ticket Bai sistemari ikusten diodan abantaila



Aintzane Ledesma, ile apaintzailea.

AINTZANE LEDESMA

“Aurreikusten zuena baino inbertsio txikiagoa egin behar izan du bere ile apaindegian”

bakarra”, adierazi du. “Herri-tar bat euskalduna bada eta komertzio batean arreta eta

fakturak euskaraz jasotzen baditu, konfiantza emango dio horrek, eta, gainera, eskubidea du horretarako”.

Aurreikusten zuena baino inbertsio txikiagoa egin behar izan du Ledesma bere ile apaindegian, eta hori “albiste ona” izan dela onartu du, merkatarientzat “zailak” izaten ari diren garai hauetan. Dendek fakturazio sistema hori euskaraz jartzera anima daitezen, uste du “funtsezkoa” dela aukera horretaz “behar bezala” informatzea, dendariak jakin dezaten badutela hau egiteko aukera: Ticket Bai erabiltzeko software informatikoa euskaraz instalatu, eta tiketak hizkuntza horretan inprimatzeko.

Eskualdeko laguntzak

Andoain

Laguntza: euskara hutsean, %50eko laguntza, gehienez ere 300 euroko mugapean. Elebitan: kostuaren %30 eta 180 euro, gehienez.

Helbidea: Urigain etxea (1. solairua) La salle etorbidea., 6.

Telefonoa: 943-30 08 31.

Helbide elektronikoa:

euskarazerbitzua@andoain.eus

Astigarraga

Laguntza: kostuaren %30 eta gehienez 250 euro.

Helbidea: Erribera kulturgunea, Kontxa Etxeberria plaza.

Telefonoa: 943-33 50 64.

Helbide elektronikoa:

kultura@astigarraga.eus

Hernani

Laguntza: 300 euro asko jota.

Helbidea: Gudarien plaza 1, 1. solairua.

Telefonoa: 943-33 70 29.

Helbide elektronikoa:

euskara@hernani.eus

Lasarte-Oria

Laguntza: Guztizkoaren %50. Gehienez, 300 euro.

Helbidea: Kale Nagusia 33, 2. solairua.

Telefonoa: 943-37 61 84.

Helbide elektronikoa:

euskara@lasarte-oria.eus

Urnietan

Laguntza: 250 euro gehienez, guztizkoaren %30.

Helbidea: San Juan plaza, z/g. Telefonoa: 943-00 80 33.

Helbide elektronikoa:

euskara@urnieta.eus

Usurbil

Laguntza: oraindik ez dute prestatu.

Helbidea: Irazu kalea, 4.

Telefonoa: 943-37 19 99.

Helbide elektronikoa:

euskara@usurbil.eus

Xixori belar denda: “Naturalki erabaki dugu Ticket Bai sistema euskaraz jartzea”

Jone Etxeberria villabonatarak 1993. urtean hartu zuen Andoaingo Xixori belar denda, eta ia 30 urte daromatza mota askotako produktu ekologikoak saltzen herritarrei. Aurtengo azarotik aurrera, Ticket Bai sistema erabili beharko du zergak egiteko, eta, kontatu digutenez, “apurka-apurka” ari da ezartzen. Azkenaldian, esate baterako, dendan dituen produktuen BEZak sartzen ari da, banan-banan, eguerdietan, dena bezeroei itxita dagoenean. “Gehienak sartu ditugu, baina oraindik ez dugu guztia prest; hilabete hauetan gauza berri dezente ikasi beharko ditugu. Errazak dirudite, baina ahalegina eskatzen dute, den-dena zuzen egin ahal izateko”.

Fakturazio sistema hori euskaraz jartzea erabaki du Etxeberriak, “naturalki”. “Duela gutxi izan genuen bilera bat Andoaingo Udalarekin, eta beste merkataria batekin hizketan, esan nion euskaraz jarriko nuela Ticket



Urte amaierarako Ticket Bai sistema berriarekin lan egiteko moduan izango dira.

XIXORI BELAR DENDA

“Xixori hartu nuenetik, tratua eta salmentak euskaraz egitera ohituta nago”

Bai”. Kontatu duenez, bezero gehienekin hizkuntza horretan egiten dituzte salmentak Xixorin, eta saltzen dituzten produktuek gehien errotulazioak euskaraz dituzte, esaterako, ontziratu gabe saltzen dituzten zereal eta fruitu lehorrak. “Bezero batzuek

esaten didate ez dutela ulertzen zer jartzen duen, eta horrelakotan, nik azaltzen diet”. Hasiera-hasieratik ahalegindu dira elikagaien eta bestelako produktuen izenak euskaraz nola diren jakiten eta dendan jartzen: “Bezero bat etorri zen behin, eta galdetu zidan ea garagardo legamia ba ote genuen, eta ez nion ulertu, *levadura de cerveza* nahi zuela esan zidan arte”.

Tiket ereduak

Ticket Bai sistemarekin lanean

hasien direnerako tiket eredu batzuk prestatu ditu Etxeberriak, eta horietan irakur daitezkeen hitz ia guztiak euskaraz inprimatzen dituzte beti, jatorrizko produktuen izena euskaraz ez dagoen kasuetan salbu. “Xixori hartu nuenetik, tratua eta salmentak euskaraz egitera ohituta nago, nahiz eta bezero guztiak ez diren euskal hiztunak, eta horrela jarraituko dut aurrerantzean ere”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu duen egutegiaren arabera, aurtengo azarorako izan beharko dute prest Ticket Bai sistema. Egokitze lanak egiten ari dira Xixorin, eta oraindik den-dena prest ez badute ere, urte amaierarako sistema berriarekin lan egiteko moduan izango direla esan du Etxeberriak. Egin behar izan duen inbertsioari dagokionez, beste komertzio batzuen baina txikiagoa izan da, duela lau pabost urte berri baitzuen tresneria: ordenagailu, irakurgailu eta baskula bana jarri zituen orduan.

TicketBAI EUSKARAZen onurak

- Ticketak euskaraz ere ateraz 123/2008 Dekretua beteko da, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa, alegia.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak betetzen direla bermatzen da.
- Euskararen normalizazio-prozesuan aurrera egiten lagunduko duzu.

ZURE BEZEROEI TRATU ON BAT EMANGO DIEZU



Korrika, iruditan



Korrikak Usurbilen egin zuen ibilbidean jendetza batu zen. Irudi gehiago topatuko dituzue noaia.eus web orrialdetik. Argazkien egileak: NOAIA, AEK.

Andatza Eguna bueltan da

2019an ospatu zen azkeneko Andatza Eguna girotua bueltan dator maiatzeko lehen bi igandetarako ekintzekin:

Maiatzak 1, igandea:

Andatza Eguna

■ 09:30 Zirimararen familia-plana San Estebango plaza-tik abiatuta.

■ Andatza gainean, jolasak.

■ Goizean zehar, hamaiketako Andatza gainean: salda eta haragai zein txorizo pin-txoen banaketa.

Maiatzak 8, igandea:

Gipuzkoako Errotarren Eguna

■ 9:30 Ihurrita Errota Sustatzeko Elkartek Gipuzkoako Erroten Eguna antolatu du maiatzaren 8an. Usurbilen, ibi-



Zirimarakoak San Estebango plazatik abiatuko dira goizeko 9:30ean.

laldi gidatua Andatzako errotrarietara, Javi Castro eta Yoseba Alonso ikerlariekin. Biltzeko hitzordua: 9:30etan San Estebango plazan kotxez Puelaberriraino igotzeko. Puelaberrin 10:00etan biltzeko hitzordua. Handik hasiko da ibilaldia. “Bi

kilometro inguruko ibilbidean, Andatzan identifikatuak dituzten 25 harrobietatik hiru bisitatu dituzte”.

■ Izen ematea: aurrez usurbil-kultura.eus plataforman.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



Musikari

kataluniarrak bisitan

Gironako Jove de la Selva orkestrak Usurbil bisitatu zuen hilaren 9an Zumarte musika eskolaren gonbidapenari esker. Kalejira eder bat egin ostean, frontoian kontzertua eskaini zuten soka eta haizezko instrumentuekin. Amaieran, Zumarteko kideak sartu ziren bi abesti jotzera elkarrekin. Txoriak Txori izan zen elkarrekin jo zuten azken abestia. Astebetera, Zumarte Musika Eskolakoen bisita jaso zuten Kataluniako La Selva eskualdeko lagunek.

Espainiako Txapelketa jokatu dute Usurbil K.E-ko jubenil mutilek



Usurbil KE taldeko kideek jarraitzaile asko izan zituzten txapelketan zehar.



Taldeko hautatzaileen artean ziren Mikel Alzaga eta Xabat Beloki.

Espainiako Txapelketa jokatzetik itzuli berriak dira Usurbil Kirol Elkarteko jubenil mutilak. Asteburuan Herrialde Katalanetako hiriburuan, Bartzelonan izan dira, martxoa amaierako Euskadiko Txapelketan Espainiakorako sailkatu ostean.

Hiru neurketa jokatu dituzte asteburuan. Bat irabazi zuten, bigarren batean ere aurkaria garaitzeaz izan ziren; gol bakarrarengatik galdu baitzuten.

Aipatzekoa taldeak jarraitzaile faltarik ez duela izan. Bartzelonako bidaian bidaide izan dituzte, eskubalo elkarteko ordezkariak, senideak eta lagunak. Txapelketako partidak zuzenean online eskaini zituzten. Youtuberren “Barça TV” kanalean dituzue ikusgai.

Sailkapena

- 1-Barça 6
- 2-Moncayo-Casablanca 4
- 3-Saizar Usurbil K.E. 2
- 4-Club Balonmano Mislata 0

Zilarrezko domina euskal selekzioarentzat

Apirilaren 9tik 14ra autonomia erkidegoetako selekzioak lehian jarri zituen Espainiako eskubalo txapelketa jokatu zen Murtzian. Tartean ziren, Hego Euskal Herriko bi selekzioak ere; Nafarroakoa eta Euskadikoa. Jubenil nesken mailako taldeak zilarrezko domina eskuratu zuen, txapeldunorde amaitu zuen Cartagenan jokatutako hitzordua. Talde garai-le honetan hiru herritar zeuden; jokalarien artean, Udane

Makazaga Estella. Taldeko bi hautatzaileak ere usurbildarrak ditugu; Mikel Alzaga Martinez eta Xabat Beloki Seguro-la. Zorionak!

Harro egoteko modukoa

“Sinestezina txapelketaren hasieratik amaierara, harro egoteko moduko eskubalo maila erakutsiz. Espainiako txapeldunordeak. Eskerrik asko gozarazi diguzuen guztiagatik!”, adierazi die Euskal Eskubalo Federazioak sare sozialen bidez.

Dantza talde ezberdinen topaleku

Hamargarren Dantza Egunaren ondotik, dantzari helduen eta gaztetxoek topagune izango da Usurbil da-tozen bi larunbat hauetan:

Apirilak 30, larunbata:

5. Dantzari Topaketa

■ 16:00 Harrera dantza-talde gonbidatuei. Beasaingo Aurtzaka, Igorreko Arantzarte eta Iruñeako Ordazar.

■ 17:00 Kalejira udaletxetik abiatuta.

■ 19:30 Dantza saioa frontoian.

■ 23:30 Erromeria Alaiki taldearekin.



5. Dantzari Topaketa ospatuko da larunbat honetan Usurbilen.

Maiatzak 7, larunbata:

3. Dantzari Txiki Eguna

■ 10:00 Harrera dantza-talde gonbidatuei: Hernaniko Ttarla, Zarauzko Jalgi, Urnietako Ega-

pe eta Oiartzungo Haurtzaro.

■ 11:00 Kalejira udaletxetik abiatuta.

■ 13:00 Dantza-emanaldia frontoian.

■ 17:30 Dantza gidatuak Ttipi-

ka taldearekin frontoian.

Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.

Dantza eguna, iruditan



Dantza Egunen hamarkada borobildu duen herri ikuskizuna gogotik txalotu zuten apirilaren 9an frontoira joandakoek. Irudi gehiago noaua.eus atarian.

Udajolasen izen-ematea zabalik da

Maiatzaren 5era arte zabalik dago uztailaren 4tik 29ra, astelehenetik ostiralera 9:30-13:30 artean HH3-LH6 maila arteko ikasleei eskainiko den Udajolasen izen emateko garaia. Online bideratu beharko da matrikulazioa noaueus atarian "Udajolas" atalean klikatuta.

Gehienez 200 gaztetxorentzako lekua egongo da Udajolasen. Atal horretan dituzue izen emateko argibideak (aurkeztu beharreko dokumentazioa, ordainketa nola egin...) baita Udajolas ekimenari buruzko nondik norako guztien berri ere.

Hobariak ahalik eta azkarren eskatu

Kontuan hartzeko pare bat ohar; kuota orokor bat finkatu



Maiatzaren 5era arte dago Udajolasen izena emateko epea.

da urtero moduan, baina baita familia ugarietzako kuota berezia ere. Horrekin batera, errentaren arabera hobariak aplikatuko dira, beti ere, aurrez Udalak onartutako ziurtagiria aurkeztuta. Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez, "Udajolasen hobariak jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da onuradun izaera aitortua iza-

tea izena eman aurretik. Hobaria jasotzeko eskaria egitetik ebazpena jasotzera, gutxienez, 15 eguneko tarte behar izaten da, eta, gehienez, hilabete inguru". Beraz, igaro diren jai egunok tarteko, hobariak jasotzeko interesa duten herritarrei ahal bezain laster eskatzea gomendatu die Udalak. "Hobariak aurtengo Udajolasen

aplikagarri izateko, maiatzaren 5erako erabakita egon behar du udal-hobarien eskariak".

Begiraleen lan-poltsa osatzeko deialdia

Aisialdi ekimen honetan lan egiteko poltsa osatzeko zuzendari eta begiraleak behar ditugu urtero moduan. Batetik, bi hilabeteko esperientzia izatea eskatzen da, baita begirale edota zuzendari titulua izatea ere, EGA edo baliokidea den agiriarekin batera. Dokumentuoz gain, sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da. Usurbildarrek izango dute lehentasuna.

Agiriok elkarte@noaueus helbidera helarazi edota NOAUA! K.E.-ren egoitzara (Bordaberri, 3) ekarri daitezke maiatzaren 5a baino lehen.

Antza Komunikazio Grafikoak diseinatzaile-maketatzailea behar du!

Eskatzen dena:

- Diseinu grafiko eta editorialeko programa desberdinak menperatzea (Indesign, Illustrator, Photoshop...)
- Diseinu zein maketazio lanetan esperientzia izatea euskarri desberdinetan
- Euskara menperatzea.
- Ikasketak: Erdi edo goi-mailako ikasketa espezializatu izatea

Baloratuko dena:

- Ilustrazio eta marrazketa lanak egiteko gaitasuna.
- Inprenta edo/ta estudio grafikoetan esperientzia izatea.

Eskaintzen dena::

- Lanaldi osoko kontratua.

Interesa izanez gero, bidali curriculum eta portafolioa info@antza.eus helbidera 2022ko apirilaren 30 baino lehen "diseinatzaile-2022" erreferentzia adieraziz.

antza

USURBIL DÖNER KEBAB
ONDO JAN, ONDO BIZI

Zabalik Gaude

Dastatu zaporea Usurbilgo Döner Kebab-en, Usurbilgo janari lasterreko jatetxe berri-berrian.

Kokapena: Borda Berri Kalea, 5 - Usurbil

Ordutegia:
Astelehenetik ostegunera (13:00 - 16:30 eta 18:30 - 23:00)
Ostiraletik igandera (12:30 - 23:30)

Telefona
843 675 265
603 609 183

Arken informazio gurtia lortzeko, jarraitu gaitzazu gure Sare Sozialetan

[usurbil_dk](#) [Usurbil Döner Kebab](#)



San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Pentsiodunen bizikleta martxa prestatzeko lehen bilkura

Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduko lau herrialdeetako talde sustatzaileen topagunean bilakatu zen apirilaren 12an Potxoenea. Ekainaren hasiera aldera bizikleta martxa bat antolatu asmo dute. Usurbilen egin zuten saioan, “lehen harria jartzen aritu gara”, adierazi diote NOAUA!ri. Informazioa partekatu eta prestateta lanak koordinatzen.



“EAE-n 70.000 pentsiodun daude 500 euro baino gutxiago kobratzen dutenak”, dio Pentsiodunen Mugimenduak.

PENTSIODUNAK

“Hego Euskal Herriko 80 herrietan biltzen dira astero”

Hedabide honi aurreratu diotenez, Hego Euskal Herrian barrera soilik ez, Ipar Euskal Herriatik ere igaroko den bizikleta martxa hiru aldarri nagusiren bueltan bideratuko dute: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, zerbitzu publikoen defentsa eta zaintza eredu berri bat galdetzeko. Hurrengo asteetan zehaztasun gehiagoren berri emango dute. “Izango duzue gure berri”, aurreratu digute.

“Erreferentziazkoak izatea lortu dugu”

Bizikleta martxa heldu artean, azken lauzpabost urteotan egin duten moduan, astelehenero

mobilizatzen jarraituko dute; Hego Euskal Herriko 80 herrietan biltzen dira astero, azken lau urteotan egin duten moduan. “Erreferentziazkoak izatea lortu dugu gizaratean”. Aldaketa garaiotan, gogorazten dute pertsona helduenak izan direla alarma-oihua egin dutenak. Pandemiak kolektiboa “oso gogor kolpatu” duela diote. Baina eutsi diotela mobilizazioei. “Erreferentzia bat garela argi dago”.

Eta haien aldarriek bizirik segitzen dute. “Premiazkoak dira gure erreibindikazioak”, nabarmendu dute. Aldarriok erakundeek gauzatzeko modukoak direla ohartarazten dute. “Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak badiutuzte eskumenak”, horretarako. Oinarritzko eskaerak dira pentsiodunenak; bizitza duin baterako. Adibide bat jarri digute. EAE-n “70.000 pentsiodun daude 500 euro baino gutxiago kobratzen dutenak”. Diotenez, horregatik mugitu behar gara guztiok, erakundeek egoera hau iraultzeko “eskumenak badituztelako”. Gizaratea aktibatzen jarraitu nahi dute.

Mobilizazio bikoitza, presoek eskubideen alde

Apirilak 29, ostirala

■ 20:00 Euskal presoek eskubideen aldeko elkarretartzea Mikel Laboa plazan.

Maiatzak 7, larunbata:

■ “Etxerako bidean Saretzen”

eguna Orion:

10:00 Lasartetik etorriko den zutabearekin bat eginez, Usurbilgo plazatik mendi martxa Oriara.

13:30 Ekitaldia.

14:00 Bazkaria. Txartelak

Aitzaga, Txiriboga eta Benta tabernetan jarri dira eskura garri.

17:30 Kontzertua: Distorpia elektrotzaranga. Horretaz gain, jokoak, haurren txokoa...

Auto istripu baten inguruko lekukotza eskaera

Apirilaren 9an larunbata, goizeko 11:00ak aldera, bi kotxeren arteko istripua gertatu zen Harane futbol zelaiko aparkalekuan. “Norbaitek ezbeharrak ikusi bazuen, bere lekukotza jaso nahiko genuke”, adierazi digu autoetako baten gidariak. Harremanetarako kontaktua, haxe: 636 531 650 (Ana).

Urbilek liburutegizako txoko bat inauguratu du

Urbilek liburuak trukatzeko txoko bat ipini du. ‘Book-crossing’ izeneko sistema erabiliko dute trukaketak egiteko. Ekimen honen bidez, erabilerak publikoko espazioetan irakurtzeko ohitura sustatu nahi du Urbilek, erabiltzaileek emandako liburuak denon eskura eskainiz, eta irakurleak sustagarritasunaren eta berrikuntzaren baterako ardura izatera gonbidatuz.

Truke-guneari

Bisitariak eta merkataritza-guneko langileak beren liburu erabiliekin espazio hori elikatu ahal izatea da helburua. “Truke-gune honekin, gure bisitarien eskura jartzen dugu liburuak bigarren bizitza bat emateko espazio bat; irakurketa sustatzen duen espazio bat”, adierazi du Leyre Lobatok, Urbil merkataritza-guneko gerenteak.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Energia berriztagarrien komunitatea eraikitzen hasteko gonbita

Energia berriztagarrien komunitatearen inguruko lanketa bideratzen hastera doa herri hau. Udalak abiaraziko du, herritarrek bidelagun izan nahi dituen egitasmoaren aurkezpenarekin; maiatzaren 3an 18:00etan Sutegin. Komunitateok zer diren eta Usurbilen zer egin daitekeen azalduko dute hitzordu honetan.

Udalaren enkarguz, Goiener energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak dinamizatuko du prozesua. “Herritarrek gerturatzea nahi genuke, gaiaren inguruan pixkanaka sakontzen hasteko”, adierazi zuen aste hasieran, hitzordu honi buruzko Potxoe-neako aurkezpenean, Alazne Arruti Goienerreko ordezkariak.

Prozesua bera aurkeztuko da, asmoa talde sustatzaile bat osatzea litzateke. “Batez ere arlo juridiko eta ekonomikoa landuko dira. Proiektu ezberdinak Usurbilen nola uztartu daitezkeen”. Formakuntza edo



Udalaren enkarguz, Goiener energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak dinamizatuko du prozesua.

BILERA DEIALDIA

“Komunitateok zer diren eta Usurbilen zer egin daitekeen azalduko dute maiatzaren 3rako Sutegin deitu duten bileran”

ahalduntze prozesu bat egongo da eta “horren ondorio izango da sortzen dena”. Arrutiren esanetan, “gure neurrira egindako proiektua, herriaren erabakiz gauzatutakoa”.

Goienerreko ordezkariak “langile eta herritar bezala, Usurbilen

energia komunitate bat sortu daitekeela iruditzen zait”.

Energia sistema bidezkoago bat eraikitzeko aukera

Energia komunitate batekin hain zuzen, “komunitatearentzako onura kolektibo bat bilatuko da”: aurrezpena, prezio justuak eta lanpostuak sortzeko aukera legoke onura ekonomikoen artean; sozialen artean, pobrezia energetikoari aurre egiteko neurrien lanketa; ingurumen arlotik bertako baliabideen erabilera.

Energia berriztagarrien komunitatea sortzen lagundu nahi dutela adierazi zuen alkate Agurtzane Solaberrietak. “Aukera bikainak dira herritarren parte hartzea eta ahalduntzea sustatzeko, tokiko energia beste modu batean kudeatzeko eta energia sistema erresilienteago eta bidezkoago bat eraikitzeko, burujabetza energetikoa ipar eta denontzat bizigarria izango den Usurbil zerumugan”.

Hain zuzen, bizi dugun testuinguruan, energiaren prezioaren neurrigabeko gorakada edota “Euskal Herriak duen menpekotasun energetikoa” ikusita, “trantsizio energetikoaren erronka premiazkoa eta urgentziazkoa da”. Eta aldaketa bide horretan, “gure premisa argia da; trantsizioak iraunkorra, berriztagarria, baina batez ere justua eta inklusiboa izan behar du, inor atzean edo bazterrean utziko ez duena eta herrikideen arteko aukera berdintasuna ere bermatzeko bokazioa izango duen trantsizioa”.

“Gure inguru hurbilean ugaltzen ari dira gisa honetako komunitateak”

Energia berriztagarrien komunitateen gaiari lotutako lanketa hau alor honetan Usurbilgo Udalak jorratzen ari den bide luzeago baten baitan kokatu dute. Urteotan bideratu dituzten hainbat egitasmo aipatu zituen Ibon Goikoetxea ingurumen eta nekazaritza alorreko udal teknikariak: Udarregi Ikastolan eta Oiar-do Kiroldegian jarriak dituzten eguzki plakak esaterako. Hauei esker, “Kiroldegiko kontsumoaren %24a energia berriztagarrien bidez egiten dugu”. Udarregikoa ikastolarako soilik ez, udal eraikin

hainbat hornitzeko ere baliatzen dute.

Zumarte Musika Eskolaren eraikin berriak “geotermia instalazioa du”. Pikaolara gas azpiegitura zabaltzea lortu eta orain arte Haranen eta inguruko bizilekuetan zuten gasoilarena ordezkatzeko du aurrerantzean.

Energia efizientziaren aldeko egitasmoak ere sustatzen dihardu Usurbilgo Udalak. Kontsumoa nabarmen murrizten ari den LED teknologia txertatu dute hainbat auzuneetako argiteria publikoan, berriki egindako azterlan batean

2030erako herri osora hedatzeko erronka jarria dute.

Udalaren energia kontsumoaren jarraipena egiteko software bat ere badute. Horrek “kudeaketa erraztu eta hobetzen digu”. Egitasmo gehiago; bestelako mugikortasun eredu baten alde, jada 7.000 kilometro bidea osatu duen auto elektriko partekatua jarri zuten martxan iaz. “Pikaola-Saizar bidegorri zatia egin zen”. Txiki-erdi-Troia artekoa ahalik eta lasterren egiteko “Aldundiarekin lanketan ari gara”, berri eman zuen udal teknikariak.

Beste bi egitasmo; aurreko

urtean zehar Udalak zabalik izan eta herritarrei aholkularitza zerbitzua eskaini dien energia bulegoa. Eta hondakinen nahiz ur kontsumoari lotutako zergak ordaintzeko herritarrek hobariak eskatzeko aukera dutela gogorarazi zuen.

Egitasmoen zerrenda honi batuko zaio orain energia berriztagarrien komunitatea lantzeko abiaraziko duten prozesua. “Gure inguru hurbilean ugaltzen ari dira gisa honetako komunitateak. Arretaz jarraitu ditugu prozesu hauek eta urrats hori emateko ordua iritsi zaigu”, adierazi zuen alkateak.

Lanbide Eskolakoak Herbehereetan

Usurbilgo Lanbide Eskolako Mekanika eta Mantenuko 16 ikasle eta irakasle Herbehereetan izan ziren hilabete hasieran. Da Vinci College eta Deltion Collegeko ikasle eta irakasleekin lanean jardun zuten 4 egunez elkarlanean, Edutrans proiektuaren garapenean sakontzeko.

Inguruko hainbat enpresetan ere izan dira, etorkizunerako harremanak sendotu eta elkarlanerako bideak sustatzeko asmoz. Ikasleak “oso gustura” itzuli zirela adierazi dute Lanbide Eskolako arduradunek eta esperientzia aberasgarria berriz errepikatzeko gogoarekin daudela. Ikastetxea Edutrans proiektu europarrean ari da parte hartzen. Proiektu honetan Usurbilgo Lanbide Eskolaz gain, Herbehereak, Alemania, Danimarka eta Valentziako beste 6 ikastetxe ari dira elkarlanean. Helburua trantsizio energetikoari buruzko ikasketak eta prestakuntza-ereduak garatzea da, enprekin elkarlanean, ikasleek ere bertan parte hartzeko aukera dutela.



Usurbilgo ikastetxea Edutrans proiektu europarrean ari da parte hartzen.

AURREMATRIKULAZIOA

“2022-23 ikasturterako aurrematrikulazioa maiatzaren 9tik 27ra egin beharko da”

Datorren ikasturtera begira

2022-23 ikasturtera begirako aurrematrikulazio epea maiatzaren 9tik 27ra bideratuko du Lanbide Eskolak. Hilabete hasierarako finkatu ditu ordea eskolako azpiegiturak nahiz bertako hezkuntza proiektua

bera ezagutzeko ate irekien jardunaldiak. Hitzordua aurrez eskatu beharra dago, 943 364 600 telefono zenbakira deituta edo adkomunikazioa@lhusurbil.eus helbidera idatzita. Hitzorduek, hauexek:

Maiatzak 4 asteazkena:

- 16:00-17:30 artean Erdi Mailako zikloen aurkezpena.
- Goi Mailakoena, 17:30-19:00.

Maiatzak 7 larunbata:

- 10:00-11:30 artean Erdi Mailako zikloen aurkezpena.
- Goi mailakoena, 11:30-13:00.

Haur Eskolan matrikulatzeko garaia

Apirilaren 28tik maiatzaren 11ra bideratuko du 2022-23 ikasturtera begirako matrikulazioa Kalezarren kokaturiko Haur Eskolak. Gogoan izan, 0-3 urte arteko Haur hezkuntza eskaintzen dute. Deialdia beraz, 2020, 2021 eta 2022 urteetan jaiotako haurrei zuzendurikoa da.

“Epez kanpoko izen-emateei ezin diegu plaza bermatu”

Haur Eskolak NOAUA! bidez zabaltu duen oharra segidan. “Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta orduetia bermatu”.

Informazio gehiago

edota hitzordua eskatzeko:

- haureskola@udarregi.eus
- 943 374 061 telefono zenbakia (8:30-12:00 artean).

Langabetuak kontratatatzeko diru-laguntza deialdia

Auzolan Berri izeneko enplegu eta prestakuntza programan parte hartzen ari diren Beterri Buruntzako langabeak kontratatatzeko dirulaguntza deialdia iragarri du Usurbilgo Udalak Gipuzkoako lantegientzat. Eskualdeko udalek abian jarritako egitasmoak “gizarte-

ratzeko ibilbide bat marrazten du, pertsonei laguntzen diena programak irauten duen prozesu osoan, prestakuntza-baliabideak, arreta pertsonalizatua eta lan-esperientzia eskainiz aurrez prestakuntza jaso duten jarduerasektorean”.

Diruz lagunduko diren kon-

tratuek lanaldi osokoak eta gutxienez 3 hilabeteko epea izan beharko dute. “Laguntza horiek ezin izango dira bideratu jardueraberria sustatzen duten pertsonak kontratatatzeko”. Bestetik, “enpresa onuradun bakoitzari diru-laguntza bat baino gehiago eman ahal izango zaio”.

Azaroaren 30era arte

Laguntza hauen onuradun izan daitezke, egoitza soziala edo lantokia Gipuzkoan duten lantegiak. Eskabideak azaroaren 30era arte aurkeztu daitezke. Informazio gehiago, apirilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elizagaia

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Ziortzakoak, oporraldiaz gozatzen

Aisialdi tartean ekimen ezberdinez gozatzeko aukera izan dute gazte-
txoek azken asteotan oporraldian. Ziortza Gazte Elkartek bi ekintza egun antolatu zituen DBH-koentzat.

Usurbil K.E.-k, Usurbil F.T.-k eta Pagazpe pilota elkarteak Usurbilgo Kirol Astea LH-ko ikasleentzat, eragile bakoitzaren dinamika plazaratuz. Gaztelekuak besteak beste, pizza-tailerra edota Getaria-Zarautz irteerak.

Gaztelekuaren oharra

Ohiko ordutegian zabalduko dute aurrerantzean:

■ Astelehena:

16:30-18:00, DBH 2-3-4.

18:00-19:30, Adin guztiak.

■ Osteguna:

16:30-18:00, DBH 2-3-4.

18:00-19:30 Adin guztiak.

■ Larunbata:

16:00-17:30 DBH 1.

17:30-19:00, Adin guztiak.



Ziortza Gazte Elkartek bi ekintza egun antolatu zituen DBH-koentzat.

Biodantza ikastaroa

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak emakumeei zuzenduriko biodantza ikastaroa doan eta euskaraz eskaintzen segiko du Eider Zuriarrainen eskutik. 15 lagunentzako lekua egongo da. Saioak, asteartee-tan, 15:30-17:00 artean Oiardo Kiroldegian. “Gorputz adierazpen sistema bat izateaz gain, garapen pertsonalerako proposamena ere bada”.

Izen ematea:

943 377 110

parekidetasuna1@usurbil.eus

KzGunea, arratsalde

■ Maiatzak 2-4, 16:00-18:00
“PC, teklatua eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu”.

■ Maiatzak 5-18, 16:00-18:00
“Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi”.

■ Maiatzak 19-25, 16:00-18:00
“Mekanografia. Ikasi hutsetik”.

■ Maiatzak 26-27, 16:00-18:00
“Online izapideak Osakidetza-
rekin”.

Informazio gehiago:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Desazkundera eta txorien kantuak, Anerrekaren datozen hitzorduetan

Apirilak 28, osteguna

■ 18:30 “Desazkundera: patu saihestezina nola bihurtu emantzipazio bide” hitzaldia Sutegiko auditorioan.

■ Hizlaria: Joseba Azkarraga Etxagibel. Soziologian doktorea da. EHUKo Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle eta ikertzailea.

■ Izen ematea: usurbilkultura.eus plataforman.

Maiatzak 7, larunbata

■ 10:00 Txorien kantuak eza-gutzeko ibilaldia Mikel Olano basozainarekin. Lehenbizi Sutegin, gaiari buruzko azalpena eta kantak entzuteko aukera. Segidan, Aranerrekan txorien kantuak identifikatzeko ibilaldia.

Antolatzailea: Anerreka.

“Harri minak” antzezlan

“Zuloak harriari min ematen al dio?” galdera hizpide duen Udalbiltzaren “Geuretik Sortuak” egitasmoaren baitan ondutako Berritza eta Bonbon Beltz konpainien “Harri minak” antzezlan maiatzaren 8an, 18:30ean Sutegiko auditorioan. Amancay Gaztañagak zuzendu eta egile nahiz antzezle diren Josune Gorosteguik eta Dominika Recalt-ek antzezturiko emanaldirako sarrerak 5 eurotan aurrez usurbilkultura.eus plataforman.

Usurbildarrak Gazte Martxan

“Usurbilgo gazteok ere zutik!”, mezuaren bueltan kaleratu du ondoko argazkia sare sozialen bidez Usurbilgo Ernaik. Eguntan Baztanen ospatu den Euskal Herriko Gazte Martxan parte hartu dute. Euskal errepublika baten beharra aldarrikatu zuten Aberri Egunez Iruñean amaitu zuten ekimenean. Tailerrak, hitzaldiak edota kontzertuak tartekatuz ziren egitarauan. Rukula herriko taldeak ere emanaldia eskaini zuten.



Usurbilgo Ernaiko ordezkariak ere Gazte Martxan hartu zuten parte.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIK!
650 31 31 91 USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetea, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko

nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Pun-tapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da aste-buruetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburueta-rako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua

jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaereta-rako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko prest. aneseoane@gmail.com 695 184 179

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxetako garbiketa lanak egiteko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkut. Harremanetarako: 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

M^o Carmen izena jartzen duen pultsera bat aurkitu dugu Donostiako autobus paradan. Zure bada deitu 943362088 telefono zenbakira

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak Aitor eta Gorka!**

Familia eta lagunen partez. Apirilaren 18an, 11 urte bete zenituzten. Muxu potolo bana.

**Zorionak Ani!**

Apirilaren 29an 9 urte beteko dituzu!! Beraz, muxu erraldoi bat zuretzat!!

**Zorionak Izaro!**

Apirilaren 23an 10 urte bete dituzu. Muxu handi bat etxekoan partez.

**Zorionak Ane!**

lada 6 urtetxo bete ditu gure etxeko Xomorritak! Askok maite zaitugu!

**Zorionak Markel!**

12 urte beteko dituzu maiatzaren 2an. Muxu handi bat fami-liaren partez.

Usurbil FT-ren errifa zozketa

Honatz futbol klubak eginiko errifa zozketako zenbaki sarrituen berri:

1- 2956. Mariscos Bruño.

Mariskada.

2- 8673. La Perla Talasoterapia.

Spa eta bazkaria.

3- 0510. Marije denda baleak.

4- 1812. Otaz Goxoko saskia.

Futbol partidak**Apirilak 30, larunbata**

■ 9:00 Infantil neskak:

-Udarregi Usurbil FT "B"

-Goierri Gorri FK "B"

■ 11:15 Infantil mutilak:

-Udarregi Usurbil FT "B"

-Danena

■ 12:45 Jubenilak:

Usurbil FT-Orioko FT

■ 15:30 Kadete neskak:

Usurbil FT-Intxaurdi KE "A"

■ 17:45 Preferente mutilak:

Usurbil FT-Gure Txokoa KKE

Heriotzak**Teresa Irastorza Elgarresta**

Apirilaren 12an hil zen
98 urterekin

**Heriotzak****Fidel Balerdi Mintegi**

Apirilaren 13an hil zen,
89 urterekin

**Heriotzak****Joxe Mari Torregarai Martija**

Apirilaren 24an hil zen,
57 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 29 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 30 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 01 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astlehena 02 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 03 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 04 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Osteguna 05 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 06 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 07 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 08 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda apirila/maiatza

29 ostirala

- **Bertso-saio musikatu solidarioa: "Tabuen kutxatik oholtzara"** 19:00etan Aginagako Eliza Zaharrean.
- **Sarearen mobilizazioa** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

30 larunbata

- **Bertso-ibilaldia Aginaga goiko sagastietan zehar.** 11:00etan Aginagako plazan.
- **5. Dantzari Topaketa.** Ikus 14. orrialdea.
- **"Eresia: Lurra arin bekizu, ama"** antzezlan. 20:00etan Sutegin.

01 igandea

- **Andatza Eguna.** Ikus 13. orrialdea. 09:30 Zirimararen familia-plana, San Estebango plazatik abiatuta. Jolasak Andatza gainean. Hamaiketako Andatza gainean.

Bertsoen asteburua Aginagan

Bertsolaritzari eskainitako aste-burua izango da honakoa Aginaga partean. Bertso-saio musikatu bat antolatu dute ostiralerako Eliza Zaharrean. Eta larunbatean, bertso-ibilaldia Aginagako plazatik abiatuta.

Apirilak 29, ostirala, bertso-saio musikatua

- 19:00 "Tabuen kutxatik oholtzara" bertso-saio musikatu solidarioa Aginagako Eliza Zaharrean.
- Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Ane Labaka, Miren Artetxe eta Eli Pagola.
- Gai-jartzailea: Amaia Agirre.
- Musikariak: Ixak Arruti eta Gari Ota-mendi.
- Zehaztasunak: "Inurri elkartearen eskutik, minbizia modu batera edo bestera jasatea tokatu zaienei laguntzeko eta gizarte sentsibilizatzeko "Tabuen Kutxatik Oholtzara" proiektu solidarioa martxan jarri dugu, gertutik bizitako esperientzien harira. Gaur egun gizartearen ahotan eta mediatikoki hain ezaguna den gaixotasun honen atzean, orokorrean uste dena baino mundu zabalagoa dagoela ikusarazi nahi dugu, gaixotasunak inposatzen duen isiltasuna hautsiz, mamuak zokoratuz eta tabu diren gaiak azaleratuz.

Bularreko minbiziari lotutako estereotipoak gainditzeko ekarpen xume bat



Maialen Lujanbio ostiraleko bertso-saio musikatuan izango da eta baita biharamuneko bertso-ibilaldian ere.

egin nahi genuke, gure esperientzia, ahotsa eta gorputza plazaratuz; bide batez esanda urteetan ukatu zaion presentzia eta espazioa eskainiz, eta sortzen dituen emozioak azaleraziz".

■ Sarrera: 10 euro, aurrez usurbilkultura.eus plataforman.

■ Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea.

Apirilak 30, larunbata, bertso-ibilaldia

- 11:00 Bertso-ibilaldia Aginagak plazatik abiatuta, goiko sagastietan zehar.
- Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio bertsolariekin eta Jakoba Errekondoren argibideekin.
- Izen ematea: alkartasuna@usurbil.eus / 943 36 11 14.
- Antolatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo Baserriarren Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea eta Usurbilgo Udala.

Datozenak

"Eresia: Lurra arin bekizu, ama" antzezlan

Euskarazko sorkuntza bultzatzeko Udalbiltzaren "Geuretik Sortuak" egitasmoaren baitan iaz ondutako antzezlan larunbatean, apirilak 30, 20:00etan Sutegin ikusgai. Sarrerak 5 eurotan aurrez eskuragarri usurbilkultura.eus plataforman. Oier Zuñigaren ideia da eta berak zuzendutako emaldian, berarekin batera Eneko Gilek eta Belen Cruzek parte hartzen dute.



Larunbat honetan, hilak 30, 'Eresia: Lurra arin bekizu, ama' antzezlan Sutegin.

Maiatzaren 14an, erraustegira martxa

Maiatzaren 14rako antolatu dute "Zubietako erraustegiaz, zer ez digute esaten?" aldarripean, Eguzki, Donostia Bizirik, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, Greenpeace eta Ekologistak Martxan eragileek. Goizeko 11:00etan abiatuko da Lasarte-Oriako Okendo plazatik. Elektrotzaranga, joaldunak... iragarri dituzte.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

Uraitz, s.l.

Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas

2022
udaleku irekiak

IZEN-EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA

Udajolas Usurbilen erroladatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago. Uztailaren 4an hasi eta 29an amaituko da, eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Gehienezko plaza kopurua 200 umekoa izango da.

Ordainketa LABORAL KUTXako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da

UDAJOLAS eta HAURRAREN IZEN-ABIZENAK adieraztea:

ES28 3035 0140 34 1400025811
(Usurbilgo Udaleko kontua)

Izena emateko epea:

apirilak 25etik maiatzak 5era (biak barne)

Kuota: 86,28€*

Famili Ugaria: 70,04€ (Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia bidali behar da).

Izen-ematea egiteko lotura:

<https://forms.gle/DtCFxw5e4BZkT1Jk6>



(*) Errentaren araberako hobariak aplikatuko dira, beti ere, aurre udalak onartutako ziurtagiria aurkeztuta

Aurkeztu beharrekoa:

(elkartea@noava.eus helbidera bidali)

- Ordainketa-agiria
- Gizarte segurantzako txartelaren kopia.
- Familia Ugarien kasuan: Familia Ugarien txartela edo Familia Liburuaren kopia
- Hobarien kasuan, udalak aurrez emandako ziurtagiria.

OHARRA: Maiatzak 5 da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko. Informazio gehiago elkartea@noava.eus helbidean edo 688807336 telefonoan. Guraso-bilera, ekainaren 21ean (asteartea) Sutegiko auditoriumean, 17:00etan.



Aurkezpen irekia

Energia Berriztagarren Komunitateak: zer dira?
Zer egin dezakegu Usurbilen?

Maiatzaren 3an, Sutegin, 18:00etan



KOMUNITATE ENERGETIKOAK

Izen-ematea: usurbilkultura.eus

